



## Mabi Revuelta

# Ume izatearen ederra



**Xabier Gantzarain**  
@gantzarain

### DIBERTIMENDU TIPOGRAFIKOAK (2010)

Argazkiak, 45 x 55 cm bakoitza

2015ean egon zen ikusgai Artiumen *Jostailu apurtezinak* erakusketa. Azken urteetako ikerketa plastikoaren emaitza zen han ikus zitekeena, hiru ildo nagusiren inguruan eratua: hizkuntza, jolasa eta arte hezkuntza.

Erakusketa haren oinarrian lan hau zegoen, *Dibertimendu tipografikoak*, 1926an Pragan argitara emandako *Abe-ceda* liburuaren bertsioa. Gorputzarekin osatutako alfabetoa. Hizkuntzaren materialtasuna abiapuntu hartuta, gorputza bihurrituz joan ziren hizkiak eratzten. Abangoardia txekiarreko kide ziren Vittezhav Nezval poeta, Karel Teige artista eta Milada Mayerova dantzaria bildu zi-

ren abeze hura ontzeko, eta haren bertsioa egiten dibertitu zen Mabi Revuelta Sierra (Bilbo, 1967ko abuztuaren 18a).

Alfabetoa munduko jolas guztien ama da, hitz guztiena, esaldi guztiena, munduko liburu guztiena. Baina baita geurea ere: ez genuke jakingo zer sentitzen dugun alfabetorik gabe. Eta are, ez genuke jakingo sentitzen alfabetorik gabe, hitzik gabe, esaldirik gabe, munduko liburu guztiak gabe.

Alfabetoa hasiera da, hasiera guztien hasiera. Munduak ezin du orduan baino ederragoa izan inoiz. Eta artistak edertasun ia puru hori bilatzen du, formetan ere garbia da, bere lanak aratzak dira,

jostailu berri baten antzekoak. Artistak jolas egin nahi du, baina ez bakarrik. Hizki bakoitza argazki batean erakusten du, paretan jartzen du, liburuan jaso zituena gero, baina karta sorta batean ere biltzen du alfabetoa, banatu egin daitezke, hizkiak batu, hitzak osatu, hitzak asmatu, forma eder bat eman esku artean duzun munduari.

Zertarako da ba artea?

*Gara* egunkariko *Mugalari* gehigarriarako elkarrizketan esan zuen: "Urte askotan izan naiz hezitzaile, eta maiz galdetu izan diot neure buruari artea hezkuntzan jolasaren bidez sartzeko modu egokiena zein den". ■